



SARRERA

Gu Hondarribiko gazte talde bat gara (GeryGou S.L) eta erabilgarria den zerbait sortu dugu denon artean, gaur egun oso praktikoa izan daitekeena. Hainbat ideia izan genituen, baina baztertua gelditu ziren asmatutako produktu hau pentsatu ondoren.

Gure produktua, botila magnetiko bat da, baina hainbat berezitasun ditu eta horregatik beste botiletatik bereizten da. Berria da merkatuan eta oso erakargarria da produktu eskusiboa delako. Botila hau besteekiko ezberdina da, honi esker zure mugikorra botilari itsatsi diezaiokezulako eta horrela erabilpen ezberdinak emateko aukera eskaintzen du. Alde batetik pentsatzen dugu botila bat egunerokoan oso erabilgarria dela, eta mobila gehitzeko ideia asko gustatu zitzaigun. Horrezgain, gaur egungo botila gehienak plastikozkoak dira eta ondorioz planetarentzako eta itsasorako oso kaltegarriak. Horregatik pentsatu genuen inola ere ez genuela plastikoa erabiliko. Horregatik metalezkoa da, eta gainera erabilpen handi bat eman ondoren itzultzeko aukera dago, ondorengo botila bat merkeago erosi ahal izateko. Hala ere hau sakonago azalduta dago.

Botila magnetikoa denez, mobila itsatsi dezakegu grabatu ahal izateko, gainera botilak kargagailu inalanbriko bat erantsita dauka eta itsatsita dagoen bitartean kargatzen ari da. Eta horrez gain, gaur egungo interes eta eskariarekin bat dator. Azken batean, botila honek jendearen egunerokoa errazten du. Praktikoa da bai lan arloan adibidez.

Gimnasia joatearakoan influencer gehienentzako oso interesgarria izaten da zure burua grabatu ahal izatea, eta normalean ez da erraza izaten modu egoki batean kokatzea, horregatik botila honek mugikorra iman bidez itsatsita duenez, influencerrek beren burua modu erosoan grabatzeko aukera izango dute. Bestalde botila honek bi erabilera ezberdin izan ditzake. Mugikorra modu konstatean kargatzen egongo da, horrela egunean zehar ez duzu entxufatu beharko eta ez duzu ez mezu ez dei garrantzitsurik galduko.

Ematen dituen onura guztietaz aprobetxatzeko; mundu guztiak edaten du ura eta beraz oso praktikoa da botila bat eskura izatea egun guztian zehar. Gainera, mundu teknologiko honetan gaur egun mugikorra mundu guztiak erabiltzen duen aparatu bat da, eta horregatik ideia ezinhobea da botila eta mugikorra elkarrekin edozein lekutara eramateko aukera.. Gainera, mugikorra botilari lotuta egotea, lanerako edota grabaketak egiteko oso praktikoa da, bideodeiak inungo oztoporik gabe egiteko aukera ematen baitu.

Hurrengo dokumentuetan atalez atal azalduko ditugu barne eta kanpoko egiturak zehazki.

BALOREZKO PROPOSAMENAK

AURKIBIDEA:

- Sarrera
- Gure produktuaren (bi aldagaien) balioa (kuantitatiboa ala kualitatiboa)
- Gure produktuaren (bi aldagaien) funtzioa
- Balorezko proposamena
- Beste produktuengandik ditugun desberdintasunak

Azken urte hauetan norberaren egoera fisikoa hobetzearen tendentzia asko zabaldu da, eta horren ondorioz Fitness-aren inguruan jarduteko hainbat produktu asmatu edota zabaldu dira, azken urteetan sortu den eskariaren ondorioz. Industria berri baten inguruan zerbait asko zabaltzen denean, beti hobekuntzak baitan eman daitezkeela erreparatzen dugu.

GURE PRODUKTUEN (BI ALDAGAI) BALIOA: Horren harira, guk eskaintzen ditugun produktu hauek **balio kualitatiboa** dute, guk diseinatutako diseinuari esker beste produktuek eskaintzen ez dituzten funtzioak eskaintzen ditugulako, gure produktuak desberdinu ditugulako. Biztanleria jakinaren gainean egon behar da gure produktu originaletik bi aldagai ateratzen direla non diseinu erakargarriena gimnasiaorako baliagarria izango den eta diseinurik formalena bulegorako edota egunerokotasunean erabiltzeko baliagarria izango den, bi aldagai hauek funtzio berdinak izango dituzte, baina biak produktu batean ideia asko sartzearen ideiarekin egin ditugu, jakinda hauek 16 urtetik gorakoentzako bideratuta daudela.

FUNTZIOA: Guk diseinatutako botila magnetikoak iman bat dauka, telefonoa botilari itsastea ahalbidetzen duena. Kontutan hartuz, azken urte hauetan entrenamenduetan baitan ematen diren entrenamenduetako atalak zabaldu egiten direla, praktikoa izango litzake **aukera ematea norberak bere burua grabatzeko edozer egiten mugikorraren bateria kargatzen den bitartean**. Hori gutxi ez balitz, kontutan hartu behar da **hau litro bateko edukiera duen botila bat dela eta honek hidratatzen gaituela**.

Kontutan hartuz gure botila bi aldagaian desberdintzen dela :bat bulego edota beste ekintzetarako eta bestea gimnasiaorako. **Bulegoko botilaren diseinuari dagokionez** honek diseinu kontserbadoreagoa du (kolore goibelagoak), baina funtzio berak mantentzen ditu.

ZER ESKAINTZEN DIEGU GURE BEZEROEI/ZER ARAZO KONPONTZEN DIEGU

BEZEROEI: Sarritan ariketa fisikoa praktikatzen hastea gogorra izaten ohi da, honek eskatzen duen jarraikortasunarengatik. Horren ondorioz **gure bezeroen ariketa fisikoa hasteko edota beraien lanetan dituzten helburuak produktiboki lortzeko laguntza ona izan daiteke hidratazioa** (botilan sartzen den litro bat ur ariketa egiten zauden bitartean hidratatu zaitezten edota lan egiten zauden bitartean), **eta zure ariketaren grabaketa** (nahi dituen ariketa sorta grabatzeko aukera ematen zaio erabiltzaileari, jakinda gure botila iman



batekin itsatsita dagoela botilara). Gainera, **ariketa fisikoa edota lan egiten zauden bitartean honek zure aparailu elektronikoa kargatzen laguntzen dizu zure denbora hobeto aprobetxatuz.**

Gimnasiaorako bideratu dugun aldagaia jende kirolariarentzat dago burututa eta aurrean ditugun funtzioak betetzen ditu. Bulegorako burututa dagoen aldagaia langileentzat edota edozein gizarte-talderentzat dago burututa 16 urtetik gorakoentzat, betiere. Lehen aipatu dugun moduan, bulegoko diseinua kolore goibelagoekin osatuta dago. **Hasieratik izan dugun asmoa hiru funtzio horiek hartzen zituen produktu bat egitea zen, beste**

produktuengandik desberdintzeko eta nahiz Fitness nahiz egunerokotasuneko aprobetxamenduaren mahaian kolpe bat jotzeko.

Lehen aipatutako moduan, gure marketing-estrategia nagusia produktua desberdintzea zen. Desberdintze hori existitzen dela frogatzeko lehiakideengatik desberdintzen diren elementuak zehaztuko ditugu:

-Berritasunak/Lana erraztea : Hiru funtzioak produktu batean batzea (ura eskaintzea, iman batekin botila itsastea eta mobila kargatzeko ahalmena ematea).

-Prestazioak: Internet bitartez saltzen dugu, hau da, ez da gertu egon beharrik denda batetik hau eskuratzeko. Azkar-azkar eskuratu nahi baduzu, kontutan hartu frankizia bat dugula Forum Sportekin.

-Pertsonalizazioa/Diseinua: Kontutan hartuz gure produktuak bi aldagai dituela, jakinean gainean egon behar dira bulegora bideratuta dagoen produktuak diseinu formalagoa duela eta Fitness-ekoak diseinu agresiboagoa duela (inguru horretan baitan ematen den ekintza agresiboagoa delako).

-Marka/Estatua: Erantzukizun mugatutako sozietate bezala jarduten duen enpresa bat sortu dugu **Gerygou SL** izena hartuz, hori baitan emateko lehenik eta behin Madrileko merkataritza-erregistrora joan ginen. Hori egiaztatzeko irudi bat diseinatu dugu .

-Erabilerraztasuna: Nahiz eta guk egindako produktuak hainbat funtzio elkartzen dituen, guk egiaztatu ditzazkegu funtzio hauek errazak direla erabiltzailearentzat. Telefonoan mugikorra itsatsi dezakezu (gimnasioko aldagaian). Eta bulegoko diseinuko botilak gaitasuna du, soilik kargadorea erabiltzen telefonoa kargatzeko (soilik botilan entxufatu behar da).



(Bulegoko diseinua)